

ALDUNDIAK ETA EROSKI-K INGURUMEN PROIEKTU BATEN ALDE EMANGO DUTE TXUPINAZOAREN EGUNEAN BILDUTAKO DIRUA

- **5.000 euro bilduko ditu, plastikozko zahato berrerabilgarriak salduta beiraren alternatiba gisa; hala, kopuru horrekin eta Aldundiak jarriko duen beste hainbestekin, uhalde-enara babesten lagunduko dute Arabako bi gune naturaletan**

Gasteiz, 2018ko uztailaren 26a.- Aurten ere, Andre Mari Zuriaren Plazan datorren hilaren 4an, beiraren alternatiba erabiliko da ingurumenaren alde egiteko. Izan ere, gaur goizean, zera iragarri dute Josean Galera Ingurumen ahalduak eta Jose Antonio Yela EROSKIren Harreman Instituzionaletako arduradunak, Arabako bi gune naturaletan uhalde-enara babesteko erabiliko dela plastikozko zahatoak salduta bilduko den diruaren parte bat.

Herritarrek euro bakarrean izango dituzte eskura zahatoak EROSKIren supermerkatuetan. Zehazki, zahatoak salduta biltzen den dirutik 5.000 euro joango dira proiekturako, eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak zuzenean ipiniko ditu beste 5.000. Horrela, "*indarrak batuko ditugu herritarrekin ingurumen helburu bikoitza betetzeko: iraunkortasunaren alde egitea, ontzi berrerabilgarriak erabilia, eta mehatxatua dagoen espezie bat —kasu honetan uhalde-enara— babestea*", esan du Galerak. Ez alferrik, Aldundiak bi proiektu abiaraziko ditu Zadorrako eta Salburuko urtegietan, biak ere Red Natura 2000ko guneak, non mehatxaturiko hegazti horren koloniak aurkitzen baitira.

"Alternatiba ona da jaiez gozatzeko, eta egokia Zeledon hartzeko tradizioari eusteko. Ingurumenaren iraunkortasunaren alde hartua dugun konpromisoaren parte da ontzi berrerabilgarri eta birziklagarri hau, eta, hain zuzen, ekarpen hau ingurune naturala errespetatu eta zaintzeko lerro horretan doala uste dugu", esan du EROSKIren Harreman Instituzionaletako zuzendariak, Josean Yelak, zahatoetako bat sinbolikoki foru diputatuari eman ondotik.

Harremanetarako:

EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez Herran Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel.: 944 158 642	ARABAKO FORU ALDUNDIA Prentsa eta Komunikazio Bulegoa Silvia Nuñez Castro snunez@araba.eus Tel.: 945 18 18 32
--	--